

## Ekitaldi ludiko eta akademiko ugari fakultatean maiatzean zehar

2015/05/11

Era desberdinetako ekitaldi ugari egingo dira, maiatzean zehar, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Batetik, fakultateko Euskara Batzordeak Txomin Txapel egunean bukatuko den Udaberri Kulturala izeneko ekitaldi sorta zabala prestatu du. Bestetik, literaturaren eta hezkuntzaren gaineko jardunaldiak antolatu dira. Bukatzeko, unibertsitate masterren eta hezkuntzako kurtso ez presentzialen gaineko informazio saioak eskainiko dira Aretxabaletako eta Eskoriatako campusetan.

### Ekitaldien zerrenda

- **Maiatzak 12 (asteartea). "Bertxio" bertso saioa.**
  - Bertsolariak: Miren Amuriza, Oihana Bartra eta Alaia Martin.
  - Tokia: Eskoriatako campusa.
  - Ordua: 18:00.
  - Gaiak proposatzeko: <https://twitter.com/bertxiohuhezi>
- **Maiatzak 13 (asteazkena). Antzerkia: *Konpota*. Dxuturi teatroa.**
  - Tokia: Eskoriatako Zaldibar udal aretoa.
  - Ordua: 18:00.
- **Maiatzak 13 (asteazkena). Literatur Topaketak: "Sutondoko ipuinak".**
  - Tokia: Eskoriatako campusa eta Eskoriatako Zaldibar udal aretoa.
  - Ordua: 09:00.
- **Maiatzak 14 (osteguna). Unibertsitate masterretako informazio saioak**
  - Tokia: Eskoriatako campusa.
  - Ordua: 18:00
- **Maiatzak, 15 (ostirala). "Hezkuntza kalitatea hobetzen: gakoak eta esperientziak" jardunaldia**
  - Tokia: Eskoriatako campusa.
  - Ordua: 08:45.
- **Maiatzak 20 (asteazkena). Kantaldia: Josu Zubia + talde sorpresa.**
  - Tokia: Aretxabaletako campusa.
  - Ordua: 18:00.
- **Maiatzak 22 (ostirala). Txomin Txapel, fakultateko jai.**
  - Tokia: Eskoriatako campusa.
  - Ordua: egun osoan zehar.
- **Maiatzak 23 (larunbata). Hezkuntza ez presentzialen kurtsoen gaineko informazio saioak.**
  - Tokia: Aretxabaletako campusa.
  - Ordua: 11:00.
- **Maiatzak 30 (larunbata). Graduko ikasketen gaineko ate irekiak**
  - Tokia: Eskoriatako eta Aretxabaletako campusak.
  - Ordua: 11:00.



Txomin Txapel jai ospatzen.